

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

#### **Basaldea nekazaritza ekologikoko enpresen zentroan nekazaritzarako espazioak esleitzeko deialdia, tokiko nekazaritza ekologikoaren sektoreari balio erantsia emango dioten proiektu berritzaileak eta/edo proiektu pilotuak garatzeko**

2023ko uztailaren 28an egindako bilkuran onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak Basaldea baratz zaintza ekologikoko enpresen udal mintegian landa izaerako nekazaritza azpilursailen esleipena arautzeko deialdia, baita deialdiaren eranskina ere, zeinak nekazaritzarako espazioak esleitzeko lege-araubidea jasotzen baitu. Orobat, horiek ALHAOn argitaratzea onetsi zuen.

2023ko irailaren 8ko ALHAOn (106. zenbakia) argitaratu zen deialdia, baina ez zen sartu lursailak esleitzeko betekizunak jasotzen dituen eranskina; horrenbestez, deialdiaren eranskina argitaratzea xedatu zen Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren 2023ko irailaren 15eko ebazpen baten bidez.

Aurrekoa betez, deialdiaren eranskina argitaratzen da:

#### **Lehena. Deialdiaren xedea**

Prozedura honen xedea da Basaldea nekazaritza ekologikoko enpresen zentroan tokiko nekazaritza ekologikoaren sektoreari balio erantsia emango dioten proiektu berritzaileak eta/edo proiektu pilotuak garatzeko erreserbatutako lursailak esleitzeko prozesua arautzea, Basaldea nekazaritza ekologikoko enpresen zentroko azpilursailak erabiltzeko baldintzak eta horiek eskuratzeko prozedura xedatzen dituen araudiaren 6. artikuluko 6. apartatuan ezarritakoaren arabera (2022ko uztailaren 4ko ALHAO, 77. zenbakia).

#### **Bigarrena. Lursail erabilgarrien kokapena eta deskribapena**

1. Aipatutako araudian ezarritakoaren arabera, proiektu berritzaileak edo proiektu pilotuak garatzera bideratuko du udalak azpilursailen bat, baldin eta justifikatuta geratzen bada dena delako pertsonak edo entitateak egiten duen jarduera mintegian kokatutako enpresekin lotuta dagoela jarduera-sektorea dela kausa, edo interesgarritzat jotzen bada han kokatutako enpresekin sinergia eta harremanak sortzeko aukera ematen duelako, edo Basaldea proiektua oro har garatzeko.

Proiektu berritzaileei edo proiektu pilotuei zuzendutako deialdi honetan, honako finka hauek eskaintzen dira: Abetxukuko udal mugartean (Abetxukurako errepidea, zenbakirik gabe, 80. poligonoa) dauden eta udal jabetzakoak diren nekazaritza erabilerako 11 zenbakiko eta 12 zenbakiko landa azpilursailak, Basaldea nekazaritza enpresen udal mintegian kokatuak eta jabari publikoko ondasuntzat kalifikatuak.

ZK.	AZALERA (HEKTAREAK)
11	0,70 ha
12	1,30 ha



2. Lursailek zuzeneko sarbidea eta urretzatzeneko ur-hartunea dute, baita 4. lursailean dauden negutegietako bat erabiltzeko eskubidea eta instalazio konpartituak baliatzeko aukera ere.

### Hirugarrena. Esleipendun izateko eskakizunak

1. Araudi berriaren 6. artikuluko 6. atalean jasotakoari jarraituz, deialdi honek horrelako proiektuak aurkeztu, baloratu eta erabiltzeko baldintza bereziak ezartzen ditu.

2. Esleipendun izan ahalko dira proiektu berritzaile edo proiektu pilotu bat aurkezten duten enpresak, autonomoak, elkarteak eta irabazi asmorik gabeko gainerako entitateak, baldin eta proiektu horrek balio erantsia badu Basaldea proiektua garatzeko, lurraldean agroekologia bultzatzeko eta/edo, oinarri hauetan jasotako irizpideen arabera, Vitoria-Gasteizko udalerriarantz interesgarriak badira.

3. Enpresek, autonomoek, elkarteek eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek betekizun hauek bete beharko dituzte, gutxienez:

1. Legez eratu egotea, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta edukitzea, eta administrazio publikoarekin kontratatzen debekua dakarten kasuetako batean ez egotea.

2. Elkarteek eta irabazi-asmorik gabeko entitateek Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistro Nagusian izena emanda egon beharko dute, edo dagokion erregistro publikoan.

3. Baratze-jarduerak bideragarriak egoki den eta berehalakoan ustiatu ahal izateko prest dagoen inongo landa-lurren jabe ez izatea Arabako lurralde historikoaren barruan.

4. EJZn nekazaritza ustiapen gisa alta emanda egotea (hala badagokio), edo esleitzen denetik hilabeteko epean gehienez horretarako konpromiso hartzea; orobat, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluan (Ekolurra) alta emanda egotea.

5. Proiektua sustatzen duen taldeko kideetako batek, gutxienez, prestakuntza hau izan beharko du, eta zuzenean parte hartu beharko du proiektuaren garapenean:

5.1. Nekazaritzako zein nekazaritzako elikagaietako ingeniari, edo antzekoak.

5.2. Edo nekazaritza arloko Lanbide Heziketako erdi edo goi mailako prestakuntza zikloak: nekazaritza ekologikoko ekoizpena, nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpena, paisajismoa eta landa-ingurua...

5.3. Nekazaritza ekologikoaren arloko profesional-ziurtagiria edukitzea, edo nekazaritza ekologikoaren edo bestelako nekazaritza iraunkorraren arloko prestakuntza-ikastaroak —sektorean onetsitako erakunde edo entitateek emanak— egin izana —250 ordu edo gehiagoko ikastaro bat nahiz ordu kopuru hori osatu arteko hainbat ikastaro—.

6. Azken betekizun horren lekuan, aski izango da gutxienez 6 hilabeteko esperientzia egiaztatzea nekazaritza ekologikoan edo bestelako nekazaritza jasangarrian, edo urtebeteko esperientzia ohiko nekazaritzan, eta gutxienez 20 orduko prestakuntza-modulu bat egin izana ekoizpen ekologikora bihurtzeko, lehen kasuan, eta gutxienez 100 ordukoa bigarreanean.

#### **Laugarrena. Aurkeztu beharreko agiriak**

Dokumentazio hau aurkeztu beharko da lursail bat eskuratzeko eskabidea egitean:

1. Eskabidea bera, Vitoria-Gasteizko Udalaren ereduari jarraituz egina, hauek barne:

1.1. Araudian zehaztutako baldintza eta betekizunak ezagutzen, onartzen eta betetzen direla dioen zinpeko aitortpena.

1.2. Zinpeko aitortpena, non adierazten den nekazaritzarako egoki den beste inongo landalurren jabe ez dela. Nekazaritza-jarduera bideragarririk garatu ezin den landa-lurrak bazter utziko dira.

1.3. Zinpeko aitortpena, xedapen hauetan ezarritako debekuetakoren batean ere ez dagoela adieraziz: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea, zeinaren bitartez Espainiako ordenamendu juridikora aldatzen baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluari 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak.

1.4. Vitoria-Gasteizko Udalari baimena ematea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko ziurtagiriak zuzenean eskatzeko.

1.5. Behar izanez gero, erantzukizunpeko adierazpena, nekazaritza ustiapen gisa alta emanda egoteko edo esleitzen denetik hilabeteko epean gehienez horretarako konpromisoa adieraziz, baita Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluan (Ekolurra) alta emango duela ere.

2. Enpresa edo entitate eskatzailea egiaztatu eta identifikatzeko agiriak:

— NAN edo AIZ, autonomoen kasuan, edo enpresa edo entitatearen IFZ.

— Enpresa edo entitatea eratzeko eskritura, estatutuak, legezko ordezkariaren ahalordeen egiaztapena, eta haren NANaren kopia.

— Elkarteen kasuan: estatutuen fotokopia, zuzendaritza-batzordearen osaera egiaztatzen duen dokumentazio eguneratua, legezko ordezkariaren ahalordeen egiaztapena eta haren NANaren kopia, eta dagokion erregistroan elkarte gisa inskribatuta dagoela egiaztatzen duen agiria.

— Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta edukitzearen ziurtagiri eguneratuak, horiek ofizioz eskatzeko baimena ukatuz gero (Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dituen ofizioz egiaztatuko da).

3. Lagatzeko eskatzen den nekazaritza-lursaillean garatu nahi den enpresa-proiektuari buruzko dokumentazioa:

3.1. Enpresaren/entitatearen jarduerari buruzko memoria, honako hauek adierazita:

a) Gauzatu beharreko proiektuaren esparruan edo gaian eta Basaldea proiektuari dagokionez entitate eskatzaileak duen loturaren justifikazioa.

b) Entitateak eta haren kideak proiektua garatzeko duten gaitasuna eta antzeko proiektuak garatzen duten esperientzia. Proiektuan zuzenean parte hartzen duten pertsonen curriculum vitaeak.

### 3.2. Proiektuaren memoria:

a) Proiektuaren helburuak eta Basaldea proiektuarekiko loturak.

b) Aurkeztutako proiektua berritzailea eta/edo proiektu pilotua dela justifikatzea.

c) Jardueren programa zehatza, iraupena, gauzatzeko egutegia, hartzaileak, metodologia, baliabideak, enplegu-sorkuntza...

d) Proiektuaren bideragarritasuna ikuspuntu tekniko, ekonomiko, sozial eta/edo ingurumenekotik. Memoria ekonomikoa eta bideragarritasun-plana.

e) Espero diren emaitzak eta proiektuaren eragina.

f) Enpresaren ustez proiektua oro har baloratzeko lagungarri izan daitekeen beste edozein dokumentazio, bereziki, ingurumenari egindako ekarpena eta/edo emakumeen parte-hartzea sustatzeko neurriak baloratzeko.

4. Parte hartzeko betekizunak egiaztatzeko dokumentazioa aurkezteko ere eskatu ahalko du udalak, edo eskatzaileek emandako informazioa osatzeko dokumentazioa, eskabideak eta proiektuak hobeto balioestearren.

### **Bosgarrena. Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea**

1. Basaldea zentzoko azpilursailak erabiltzeko eskabideak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunetik kontatuta. Lehen esleipena ebatzi ostean, deialdi ireki iraunkorraren sistema ezarriko da, esan nahi baita azpilursailak baliatzeko egiten diren eskabideak aztertu, hautatu eta uzteko zereginak modu jarraituan egingo direla, beti ere zer azpilursail erabilgarri dauden kontuan izanik. Lursail erabilgarririk ez bada, eskabidea itxaron-zerrenda batean jasoko da, puntuazio handienetik txikienerako hurrenkeran.

2. Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean ([www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)) egongo da eskuragarri, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere.

3. Bide hauek baliatu ahalko dira eskabidea eta nahitaezko dokumentazioa aurkezteko:

– Euskarri digitalak. Proiektu teknikoak eta gainerako agiriak formatu hauetan aurkeztu ahalko dira: USB memoria, CD, DVD edo antzekoak. Halakoetako artxibo grafiko eta testu-artxiboek PDF formatuan egon beharko dute, eta ez dute karpetarik eduki beharko, baizik eta agiri guztiak maila berean bilduta. Dokumentazioa euskarri digitalean aurkezten delarik, dagokion erantzukizunpeko adierazpena erantsi beharko zaio, Udalaren webgunetik deskarga daitekeen inprimakia baliatuz. Eskabideak behar bezala izenpetuta edo ontzat emanda egon beharko du. Euskarri digitala ez zaio itzuliko entitate eskatzaileari.

– Egoitza elektronikoaren bidez. Eskabidea eta gainerako dokumentazioa online erregistratu ahalko dira, erregistro elektronikoaren bidez. Horretarako identifikazio-txartel digitala erabili beharko da, <https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org>. helbidean ezarritakoari jarraituz.

– Paperezko euskarria. Agiriak DIN A4 edo DIN A3 tamaina eduki beharko dute, eta, herritarrei laguntzeko bulegoko digitalizatzeko lana errazte aldera, orri solteetan aurkeztu beharko da, grapa, klip edo multzokatzeko beste sistemarik erabili gabe. Eskabideari paperezkoa ez den euskarri batean dagoen dokumentazioa erantsi behar bazaio, eta beraz, hori digitalizaterik ez badago, karpeta batean jasoko da, edukiaren indizearekin, eta kanpoaldean etiketa jarrita, deialdia zein udal zerbitzuri dagokion zehaztuz.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 89. artikuluan xedatutakoaren arabera (16.4 b artikulua), eskabideak posta-bulegoetan aurkeztu ahal dira, erregelamenduz ezartzen den moduan.

4. Deialdi honetako izapideak arintze aldera, helbide elektronikoko bat gaituta eta operatibo eduki beharko dute eskabidea egiten duten pertsona edo entitateek tramitazioak iraun bitartean, hartara aurkezten duten dokumentazioan aurkitzen diren akatsak zuzendu ahal izateko, edo aurkeztutako eskabideak arin eta eraginkortasunez ebatzi ahal izateko beharrezko den beste edozein errekerimendu helarazi ahal izateko.

5. Eskatzaileek hamar egun balioduneko epea izango dute eskabideak zuzentzeko.

#### **Seigarrena. Hautaketa egiteko prozesua eta irizpide objektiboak**

Proiektuak baloratzeko, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko teknikariek honako irizpide hauek hartuko dituzte kontuan:

1. Proiektu bakoitzak gehienez ere 30 puntu lortu ahal izango ditu.

1.1. Entitatea/enpresa eta aurkezten duen proiektua garatzeko duen gaitasuna eta/edo esperientzia, baita hura garatzeko ardura duten pertsonena ere. Gehienez 6 puntu.

1.2. Proiektua, helburuak, garatu beharreko jarduerak, enplegu-sorkuntza, izaera berritzailea eta enpresa-zentroko gainerako proiektuekiko sinergiak. Gehienez 15 puntu.

a) Proiektuaren izaera berritzailea (erronkak, lan-metodologiak, berrikuntza pedagogikoak...) edo proiektu pilotuaren bereizgarriak, proiektua deialdiaren helburura egokitzea eta proiektuak tokiko nekazaritza ekologikoaren sektorean izango duen eragina. Gehienez 3 puntu (15etik).

b) Eskaeraren oinarri den proiektuak Basaldea proiektuaren udal helburuekin duen bat-etortze maila eta mintegian kokatutako gainerako proiektuekin sortutako sinergia motak. Gehienez 3 puntu (15etik).

c) Aurkeztutako proiektuaren kalitate teknikoa: jarduera-programa, kronograma, metodologia, hartzaileak, baliabideak, ebaluazio-adierazleak... Gehienez 3 puntu (15etik).

d) Proiektuaren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa, soziala eta/edo ingurumenekoa. Gehienez 3 puntu (15etik).

e) Enplegu-sorkuntza eta espero diren emaitzak. Gehienez 3 puntu (15etik).

Atal honetan gutxienez 7 puntu lortzen ez dituzten proiektuak baztertu egingo dira.

1.3. Proiektuak ingurumenari egiten dion ekarpena. Gehienez 6 puntu.

a) Sektorea deskarbonizatzen laguntzea, proposatutako ekoizpen-, merkaturatze- eta banaketa-moduaren bidez. Gehienez 2 puntu (6tik).

b) Udalerriko erresilientzia klimatikoari ekarpena egitea (tokiko barietateak erabiltzea, nekazaritza-biodibertsitatea sustatzea, lurzorua kontserbatzea, polinizatzaileak areagotzea, etab.). Gehienez 2 puntu (6tik).

c) Ura, lurzorua eta mantenugaiak kudeatzeko planteamendu berritzaileak sartzeari. Gehienez 2 puntu (6tik).

1.4. Emakumeek proiektuan parte har dezaten sustatzeko mekanismoak. Gehienez 3 puntu.

2. Berdinketa hausteko irizpideak.

Berdinketa gertatuz gero, emakumeak buru diren proiektuei emango zaie lehentasuna.

Bigarrenik, berdinketak bere horretan badirau, proiektuaren kalitate teknikoaren eta bideragarritasunaren atalean puntuaziorik handiena lortu duen proiektuak izango du lehentasuna.

**Zazpigarrena. Esleitzeko era eta itxarote-zerrenda**

1. Eskabideak aurkeztu ondoren, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko teknikariek baloratuko dituzte, aipatutako irizpideak aintzat harturik.

2. Lursail erabilgarriak elkarren arteko lehiaren bidez esleituko dira, aurkeztutako eskabideen artean.

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren banan-banako ebazpenen bidez onartu edo ukatuko dira eskabideak, horretaz arduratzen diren teknikariek txostena egin ondoren; gutun ziurtatuaren bidez edo posta elektronikoz jakinaraziko da hori, eta interesdunek 10 egun balioduneko epea izango dute balioespenaren gaineko erreklamazioak aurkezteko.

3. Beharrezko den gutxieneko puntuazioa lortu arren azpilursailik eskuratu ez duten proiektuak itxaron-zerrenda batean — puntuazio handienetik txikienera ordenatuta — geratuko dira, hori baliatuko baita hutsik geratzen diren lursailak esleitzeko.

Une horretan azpilursail erabilgarririk ez dagoelako horrelakorik esleitu ez zaion proiektu bat ebaluatzen den bakoitzean eguneratuko da zerrenda.

**Zortzigarrena. Esleipenaren baldintzak**

1. Esleipenak 5 urteko iraupena izango du, edo, epea laburragoa bada, entitateak bere proiektua garatzeko egokitzat jotzen duen denbora. Itxaron-zerrendarik ez badago, 5 urteko egonaldia bukatu ondoren emakidaren urtez urteko luzapenak eskatu ahalko dira.

2. Kontratua luzatzeari begira, entitate interesdunak alde aurretik eskatuta eta aurkeztutako proiektuarekin lotuta esleitutako lursailean egindako jardueren memoria aurkeztu ondoren, aldeko txosten teknikoa eskatuko da emakidari eutsi behar zaiola egiaztatzeko, proiektuaren garapenari lotutako irizpideak kontuan hartuz luzatzea komeni bada.

3. Luzamendu guztiak barne direla, inolaz ere ezingo da gainditu 15 urteko epea, agiria ematen denez geroztik kontatuta.

4. Gehienez ere hilabeteko epean ekin beharko dio jarduerari esleipendunak baratze-lursaillean, emakida esleitzeko kontratua formalizatzen den egunetik kontatuta. Behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio udal zerbitzu teknikoek hala egitea egoki ikusten badute, eta hala onartzen, epe hori luzatzerik izango da.

5. Esleipendunak hitzartutako epea bukatu aurretik jo ahalko du kontratua iraungitzat. Nolanahi ere, gutxienez hilabete lehenago jakinarazi beharko du, idatziz. Kontratua amaitu baino lehen azpilursailari uko egiten dioten entitateek ezin izango dute aurrerantzean azpilursailik eskatu.

**Bederatzigarrena. Erregimen ekonomikoa**

ZK.	URTEKO KANONA	HILEKO KUOTA	DIRUZ LAGUNDUTAKO HILEKO KUOTA	HASIERAKO BERMEA	GASTU KOMUNAK
11	216,58 €	18,05 €	9,02 €	108,29 €	14,00 €
12	402,22 €	33,52 €	16,76 €	201,11 €	26,00 €

1. Hektarea eta urteko 309,40 eurokoa izango da kanona, eta urtero eguneratzerik izango da, Estatuko Kontsumo Prezioen Indizea aintzat harturik.

1.1. Basaldea proiektuarekin lortu nahi diren helburuak aintzat harturik, lursail horien prezioek ehuneko 50eko hobaria izango dute lehenengo bost emakida-urteetan. Gerora, emakidaren esleipendunak Basaldeko egonaldia luzatzen badu, ezingo du dirulaguntzarik jaso.

2. Esleipendunak bere gain hartu beharreko gastuen ordainketa hilero egin beharko da, hileko lehen hamabostaldian, dela udal ogasunaren bulegoetan, dela banku-helbideraketaren bitartez.

3. Esleipendunaren eta ez besteren kontura joango dira banako kontagailua duten zerbitzuen kontsumo-gastuak, hala nola ur edo energia kontsumoari dagozkionak, baita udalak zehazten dituen zerbitzu komunei dagozkienak ere, eta negozioari dagozkion edo haren ondorioz ezartzen diren aseguru-gastu, zerga, ariel, kontribuzio eta gainerakoak.

#### **Hamargarrena. Kontratuak formalizatzea**

1. Honela egingo da esleipena:

Lehen kontratu bat sinatuko da, 5 urterako, edo erakundeak eskatutako denborarako, proiektuaren garapenak aldi laburragoa eskatzen badu. Ondoren, kontratua urtero berritu ahalko da.

2. Kontratua formalizatu aurretik, eta horrek berekin ekarriko dituen betebeharrak beteko dituela ziurtatze aldera, esleipendunak bermea ezarri beharko du, zeina dirulaguntzarik gabeko sei hilabeteko kuotaren baliokidea izango baita.

3. Kontratuak idatziz formalizatuko dira, lursaila esleitzen denetik gehienez ere hilabeteko epean.

4. Azpilursaila esleitu ondoren, dokumentazio hau eskatuko da kontratua formalizatzeko aldera:

a) Nekazaritza-ustiapenerako txartela.

b) Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren alta (hala badagokio).

c) Nekazaritza Ekologikoaren Kontseiluaren (Ekolurra) izen-ematearen ziurtagiria.

d) Gizarte Segurantzako dena delako erregimenean aurtonomo/enpres/elkarte gisa alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.

e) Erantzukizun zibileko aseguruaren kopia, eta horren prima ordaindu izanaren ordainagiria edo egiaztagiria.

4.1. Eskabidea egiteko unean artean eratu gabe dauden enpresen kasuan, gerora aurkeztu ahalko dira eratze eskritura, ekonomia jardueren gaineko zergari dagokion alta (beharrezkoa bada), Nekazaritza Ustiategiaren Txartela, dagokion erregimenean autonomo/enpresa gisa alta emanda egotearen ziurtagiria, nekazaritza ekologikoaren erregimeneko alta eta enpresaren IFZ. Dokumentazio hori, edo eskatu dela egiaztatzen duten ziurtagiriak, gehienez ere hilabeteko epean aurkeztu beharko da, esleipena jakinarazten denetik kontaktzen hasita.

4.2. Jarduerari ekiten ez bazaio, edo legezko eran eratzen ez bada, epea amaitutakoan automatikoki baliogabetuko da kontratua.

5. Kontratua formalizatu dadin, betekizun guzti-guztiak bete beharko dira, eta dokumentazioa aurkeztu. Betekizunen bat betetzen ez bada, dena delako esleipena baliorik gabe geratuko da.

#### **Hamaikagarrena. Jurisdikzioa**

1. Oinarri hauetan adierazitakoaz gain, deialdi honen xede diren azpilursailak esleitu, erabili eta gozatzeko aplikatuko den araubidea Basaldea nekazaritza ekologikoko enpresen zentroko azpilursailak erabiltzeko baldintzak eta horiek eskuratzeko prozedura xedatzen dituen araudian eta lagatzeko kontratu espezifikoko xedapenetan aurreikusitakoa izango da.

2. Deialdi honen xede diren kontratuak gauzatu eta betetzeari nahiz dituzten ondorioei dago-kienez sortzen diren auziak ebazteko Vitoria-Gasteizko jurisdikzioan horretarako eskumena duen epaitegira joko da.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko irailaren 27an

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta  
Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko AOTa  
UXUE ZANGITU APERRIBAI*